

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

2095

AGINDUA, 2015eko apirilaren 22koa, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena. Honen bidez, hasiera ematen zaio 2015. urterako diru-laguntzak emateko prozedurari, azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako hauteskunde sindikalen batzordeko, lurralde-batzordeetako eta ikuskaritzako kide diren sindikatuetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzen dituen. Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortu zituen azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuak bere II. xedapen gehigarrian zehaztu zituen bere bidez sortutako organoak osatzen dituzten sindikatuei Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren aurrekontu dotazioen pentzutan ematekoak ziren diru-laguntzak emateko prozedurak.

Halaber, aipatutako dekretuko 8. artikulua Sindikatu Hauteskundeen Batzordearen osaeran sindikatuei dagokien ordezkari arautu zuen, proportzionaltasun-irizpidea errespetatuta, enpresetako eta administrazio publikoetako langileen ordezkari-organoei hauteskundeetan Euskal Autonomia Erkidegoan sindikatu bakoitzak eskuratutako ordezkari-mailaren arabera.

Horretaz gain, aipatutako dekretuko II. xedapen gehigarriak aurrekontu-kreditua banatzeko ohiko prozedura zehazten du, eta, horren ondorioz, diru-laguntzaren zenbatekoa zati berdina eman daiteke, edo proportzionaltasuna aplikatuz, enpresetako eta administrazio publikoetako langileen ordezkari-organoei hauteskundeetan Euskal Autonomia Erkidegoan sindikatu bakoitzak eskuratutako ordezkari-mailaren arabera. Hori guztia, diru-laguntzak emateko aginduan xedatzen denari jarraikiz, eta Sindikatu Hauteskundeen Batzordeko kide diren sindikatuekiko akordioak dagoen ala ez ere kontuan hartuta.

Abenduaren 23ko 5/2014 Legeak, 2015eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Nagusiak onartzen dituenak, 3112 programan 594.000 euroko diru-laguntza bat ezartzen du sindikatuetarako, Sindikatu Hauteskundeen Batzorde Zentralean eta Lurralde Batzordeetan parte hartzeagatik.

Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortu zituen azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuak xedatutakoari jarraikiz, Sindikatu Hauteskundeen Batzordean eta Lurralde Batzordeetan parte hartzeagatik sindikatuei dagokien diru-laguntza emateko prozedurari hasiera ematen zaio honenbestez.

Hori guztia dela eta,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Hasiera ematen zaio 2015. urterako diru-laguntzak emateko prozedurari, azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako hauteskunde sindikalen batzordeko, lurralde-batzordeetako eta ikuskaritzako kide diren sindikatuetarako, Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortu zituen azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuak arautzen dituen batzorde horietan parte hartzeagatik.

2. artikulua.– Aurrekontu dotazioa.

2015. urterako aurrekontu-dotazioa 594.000 eurokoa izango da, ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Nagusi Luzatuen pentzutan.

3. artikulua.– Prozedura arrunta.

2015eko uztailaren 31ra arteko epea izango dute sindikatuek eta Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritzak, Sindikatu Hauteskundearen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortu zituen azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuko bigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalean aipatzen den adostasunera heltzeko. Aipatutako epea igarota administrazioak inolako adostasunik lortu ez dela konprobatuko balu, bigarren xedapen gehigarriaren bigarren idatzi-zatian xedatutakoa aplikatuko litzateke.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA.– Errekurtsoak.

Agindu hau azkena da administrazio-bidean. Beraren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 22a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
ÁNGEL TARSICIO TOÑA GÜENAGA.